

# Funtzionamendurako barne araudia

## **TAE ARABA, ARTE ESZENIKOEN TAILERRA**

### **2025/2026 IKASTURTEA**

#### **1. XEDEA**

Barne araudi honek TAE ARABA, Arte Eszenikoen Tailerreko ikastaroetan onartuak izateko irizpideak arautzen ditu.

Hona hemen programaren helburuak:

- Arabako biztanleak arte eszenikoetara hurbiltzea eta haien ezagutza eta praktika bultzatzea, pertsona guztien kultura eskubideen egikaritzea eta irisgarritasuna ziurtatuz eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatuz.
- Arte sorkuntza, hedapena eta kultura jarduera bultzatzea, indartzea eta sustatzea.
- Kultura Zuzendaritzak arte arloko jarduerak bultzatzea eta arte eszenikoen arloko ikerketa eta hobekuntza sustatzea.
- Haurtzarotik arte eszenikoen ezagutza eta balioespena sustatzea, haurrei txikitatik irakasten hasiz.
- Eskola adineko ikasleei eta helduei zuzendutako arte eszenikoen arloko hezkuntza eskaintza osatzea.
- Espontaneotasuna, autokontrola eta arreta sustatzea.
- Komunikazioa eta taldean lan egiteko gaitasuna sustatzea.

#### **2. HARTZAILEAK**

3 urtetik gorako ikasleak.

#### **3. PRESTAKUNTZA JARDUERA**

Haurren jolas dramatikoak  
Aktoreen prestakuntza  
Antzerkiaren hastapenak  
Inprobisazio-teknikak  
Musika antzerkia.  
Ahotsa  
Antzerki fisikoa  
Antzerkia eta zirkua gabonetan  
Jolas dramatikoak

## 4. IKASTAROAK EMATEKO TOKIAK

Ikastaroak hemen emango dira Vitoria-Gasteizen:

- Errege Katolikoak: Errege Katolikoan kalea 4, 01007
- Errotak: Erroten ibilgua kalea 11, 01006

ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO ARTE ESZENIKOEN TAILERRAREN administrazio-bulegoa hemen dago:

- Errege Katolikoak 4. Vitoria-Gasteiz. Tel.: 945 28 56 45.
- Orduategia: 9:00 - 14:00 eta 16:30 - 19:00.

## 5. EPEAK

### PLAZAK GORDETZEA

2024-2025 ikasturtean matrikulatuta dauden eta hurrengo ikasturtea, 2025-2026n plaza mantentzeko interesa duten ikasleentzat plaza gordetzeko epe bat ezartzen da.

Formulario bat bidaliko zaie posta elektronikoz, eta toki hauetan aurkeztu ahal izango dute: [tae@araba.eus](mailto:tae@araba.eus) helbidean edo TAE ARABA, Arte Eszenikoen Tailerrean (Errege-erregina Katolikoan kalea, 4), 09:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 19:00etara.

Plaza gordetzeko datuak emateko epea maiatzaren 15etik ekainaren 20ra bitartekoa izango da, biak barne.

### IZENA EMATEA

Plazak gordetzetik eratorritako plaza hutsetarako izen ematea ekainaren 27tik irailaren 8ra bitartean egingo da, biak barne.

### ONARTUTAKOEN ZERRENDAK

Onartuen zerrenda, taldea eta orduategia irailaren 9an argitaratuko dira.

### PLAZA FORMALIZATZEA

Argitaratutako zerrendetan onartutako pertsonak bakarrik formalizatuko dute plaza. Ordainketa ezarritako epean egin beharko da, onartutako zerrenda argitaratzen denetik aurrera. Irailaren 10etik aurrera.

### ORDAINKETAK

Ordainketak hiru kuotatan egin beharko dira hiruhileko bakoitza hasi baino lehen, irailean, abenduan eta otsailean. Lehen ordainketarako, hilabete inguruko epea irekiko da; hala ere, ondorengo hiruhilekoetan, prozesua 5 lanegunetan baino ez da irekiko. Egun horiek behar besteko aurrerapenarekin jakinaraziko zaie ikasleei eta interesdunei, plaza formalizatzeko formularioan adierazitako jakinarazpen-bidean. Ordainketa epearen barruan egiten bada, ikasturte osorako plaza ziurtatuko da.

### EZ ORDAINTZEA

Kuotak horretarako ezarritako epearen barruan ordaintzen ez badira, automatikoki **baja emango zaio ikasleari**, eta, beraz, dagokion ikastaroan plaza izateko eskubidea galduko du, eta itxarote zerrendan lehenengo dagoen pertsonari esleituko zaio.

Kuota bakoitzaren ordainketari esker, hurrengo hilabeteetan ikastarora joan ahal izango da, hurrengo kuota ordaindu arte. Beraz, kuotak ez ordaintzeak ez du zorrik sortuko, ez eta interesen likidaziorik edo errekarurik ere.

## **ITZULKETAK**

Eskolen hasiera: 2025eko urriaren 1etik aurrera.

Inola ere ez da kuotaren ordainketa itzuliko, plaza formalizatu duen ikasleari ikastaroa hastea eragozten dioten eta behar bezala egiaztatutako mediku arrazoiengatik izan ezik, betiere hori jakinarazi eta egoera hori justifikatzen duten agiriak aurkezten baditu, ikastaroa hasi baino 24 ordu lehenago gutxienez, [tae@araba.eus](mailto:tae@araba.eus) helbide elektronikoan edo aurrez aurre TAE ARABAn bulegoetan (Errege-erregina Katolikoak 4, Gasteiz).

Prezioa ordaindu behar duenari egotz ezin dakizkiokeen arrazoiengatik jarduera egiten ez bada, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio.

Ikastaro monografikoen eta kanpamentuen kasuetan, ordaindutako kuotaren % 85 itzuliko da monografikora edo tailerrera joan ezin bada eta gutxienez 48 ordu lehenago jakinarazten bada. Ikastaroa hasi ondoren ez da inoiz ordaindutako dirurik itzuliko.

## **EZEZTAPENAK**

Ikasturtea hasi ondoren talderen batek gutxieneko ikasle kopurua lortzen ez badu, Arabako Foru Aldundiko Kultura Ekintzako Zerbitzuak ikastaroa bertan behera uzteko edo mantentzeko eskubidea izango du. Ezeztatuz gero, berehala jakinaraziko zaie interesdunei.

## **PLAZA LIBREEN ZERREDA**

Plaza horiek ikasturtean zehar bete ahal izango dira; beraz, izen emate gehiago egin ahal izango dira otsailaren 1era arte.

Tokiak erabilgarri daudela egiaztatu ondoren, UTBko langileek beharrezko jarraibideak emango dizkizute izena emateko prozesua osatzeko eta dagokion ordainketa egiteko. Ordainketa 5 laneguneko epean egin beharko da, izen ematea erregistratzen den egunetik aurrera.

## **6. PROZEDURA**

### **PLAZA GORDETZEA (2024-2025 ikasturteko ikasleak. Ekainak 2025)**

Ikasturte honetan (2024-2025) diziplinaren batean matrikulatuta dauden ikasleek -eta ikasle horiek baino ez- plaza gordetzeko eskaera aurkeztuko dute adierazitako epearen barruan, eta hori ikasten jarraitzeko eskaeratzat hartuko da. Ezarritako epean plaza gordetzeko eskaera ez egiteak TAE ARABAn lehentasuna galtzea dakar.

Eskaera egiteko, TAE ARABAn bulegoek posta elektronikoz emango duten formulario bat erabiliko da.

Interesdunaren ordezkari edo ikaslearen guraso edo tutore gisa jardunez gero, ordezkaritza hori egiaztatu beharko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 5. artikuluan ezarritakoaren arabera.

### **IZENA EMATEA (2024-2025 ikasturteko ikasleak eta ikasle berriak)**

Izena eman beharko dute bai plaza gorde duten 2024-2025 ikasturteko ikasleek, bai ikasle berriek, datu guztiak berresteko (plaza gordeta izan arren).

TAE ARABAn eskainitako edozein ikastarotan izena emateko eska dezakete adindunek edo adingabeek, azken horiek beren legezko tutoreen baimenarekin, eta aurreko ikasturteetan kuotak ordainduta dituztenek.

Behar bezala egiaztatutako premia bereziak dituzten pertsonen izen emateak egiteko, TAE ARABAK haien esku jarriko ditu beharrezkoak diren berariazko laguntzak, behar diren giza baliabideen eta baliabide materialen arabera.

Ahal dela, izen emateak linean egingo dira **tae.araba.eus** webgunean, formulario soil bat betez; edo, bestela, aurrez aurre, Gasteizko Errege-erregina Katolikoen kaleko 6 zenbakian dagoen administrazioko langileen laguntzarekin.

Ikasle batek aukera batean baino gehiagotan eman badu izena, administrazioko langileak harremanetan jarriko dira harekin, plaza formalizatzeko epea hasi baino lehen. Dei horren helburua izango da zein ordutegi edo talde esleituko zaion definitzea eta zehaztea. Garrantzitsua da ikaslea komunikazioei adi egotea eta prozesu horretan laguntzea.

Izena emateko eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, 2025eko irailaren 10ean, onartutakoen zerrenda argitaratuko da tae.araba.eus webgunean. Zerrendak osatuko dira dauden plazen kupoa agortu arte.

Inola ere ezin izango dute izena eman kanporatzea merezi izan duten jokabideak izan dituzten ikasleek.

#### **PLAZA ORDAINKETA BIDEZ FORMALIZATZEA (2025eko irailaren 10etik urriaren 10era)**

Ahal dela, ikaspostua online formalizatu beharko da webgunean (tae.araba.eus), ikaslearen datuak betez, ordaintzailearen datuekin batera, adina, ikastaroa eta, hala badagokio, aplikatu daitekeen hobaria hautatuz.

Plaza webgunean formalizatzeko prozesua ordainketa eginez amaituko da, eta txartel edo ordainketa-gutun bidez egin ahal izango da. Bigarren kasu horretan, ikastarora joan ahal izateko lehen eskola eguna baino lehen, aurkeztu behar da ordainagiria, ahal dela tae@araba.eus helbide elektronikora bidalita.

Ezarritako hobarien onuradun izanez gero, interesdunek dagokien baldintza bete beharko dute plaza formalizatzean, eta, behar izanez gero, kasu bakoitzean dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko dute. Egun horretan aitortpena izapidetzen ari bada, aitortpen-eskaeraren edo berrikuspenaren kopia konpultsatua bidez egiaztatuko da, tae@araba.eus helbidera idatzita.

Arabako Foru Aldundiak dokumentu horiek kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu, interesdunak formalizazio-formulario horretan horren aurka egin ezean. Kontsultari uko eginez gero, egiaztagiria aurkeztu beharko ditu.

Plaza formalizatzean, honako hauek onartuko dira:

- Adierazitako ikastaroetara adierazitako ordutegian joateko konpromisoa.
- Indarrean dauden tasak ezarritako epeetan ordaintzea.

Tasa horiek ordaintzeak eskubide hauek emango ditu:

- Hurrengo hiru hilabeteetan bertaratzea.
- Plaza bat ikasturte osorako, baldin eta ordainketak epearen barruan egiten badira.

Ez dira onartuko izena eman arren ordainketa epearen barruan egin ez duten ikasleak edo, onartuak izan ez direlako, ordainketa egin behar ez duten ikasleak.

Ezarritako epean formalizatu ez diren plazek plaza libreak sortuko dituzte, eta formalizazio epe arrunta amaitu ondoren eskainiko dira. TAE ARABAaren bulegoan kontsultatu ahal izango dira.

#### **AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK**

Plaza formalizatu eta ikastarora joateko eskubidea baieztatu ondoren, TAE ARABAK ikasleei eskatuko die, posta elektronikoz, agiriatarako argazki bat emateko, fitxa pertsonala osatu ahal izateko, eta kasu bakoitzean eskatutako hobaria egiaztatzen duen dokumentazioa.

Hobariak aplikatzeko beharrezkoak diren agiriak kontsultatzearen edo eskuratzearen aurka dauden ikasleei edo legezko ordezkariari soilik eskatuko zaizkie agiriak.

## IZEN EMATEAK IKASTAROAN ZEHAR

Plaza hutsak badaude, eta tae.araba.eus webgunean plaza horiek badauden kontsultatu ondoren, izen emate gehiago egin ahal izango dira 2025ko otsailaren 1era arte; izan ere, garai horretan hasiko dira ikasturte amaierako entzunaldiak prestatzen, eta ez da komenigarritzat jotzen muntaia antolatuta dagoenean ikasle berriak sartzea.

Izen ematea hiruhilekoetako edozein hasi ondoren egiten bada, kuota osoa ordainduko da.

## 7. PREZIOAK

\* **Prezio publikoak ONARTUAK IZAN DIRA IRAILAK 23.**

TAE ARABA, Arte Eszenikoen Tailerrarekin lotutako zerbitzuen prezio publikoak arautzen dituen uztailaren 26ko 34/2022 Foru Dekretuaren arabera, prezioak honako hauek dira:

1. Eskola egutegiari jarraikiz, urritik ekainera bitartean urteko ikasturte formatuan programatzen diren etengabeko prestakuntzako ikastaroek hiru kuota ordaintzea ekarriko dute, eskola hiruhilekoei dagozkienak.

Asteko orduak	3 kuota *	Ikastaroaren prezioa*
1:00etatik 1:15era	58,00 €	174,00€
1:30	76,00 €	228,00 €
2:00	95,00 €	285,00 €
2:30	109,00 €	327,00 €
3:00	128,00 €	384,00 €
4:00	155,00 €	465,00 €
4:30	172,00 €	516,00 €
5:00	188,00 €	564,00 €
6:00	220,00 €	660,00 €
7:00	226,00 €	678,00 €
8:00	231,00 €	693,00 €
9:00	241,00 €	723,00 €
10:00	252,00 €	756,00 €
11:00	261,00 €	783,00 €
12:00	271,00 €	813,00 €

2. Taileren, monografikoen, eta kanpamentuen prezio publikoak, aldatu egingo dira ikastaroa emateko kontratatutako pertsonaren lanbide ordainsariaren arabera eta nori zuzenduta dauden kontuan hartuta. Prezio horiek honela finkatuko dira:

Heldu eta gazteentzako monografikoak / tailerrak	Ikastaroaren prezioa*
A ordainsaria. ≤ 1000 euro	32 euro

<b>B ordainsaria.</b> 1001-1999 euro	52 euro
<b>C ordainsaria.</b> ≥ 2000 euro	63 euro

Haurrentzako tailerrak	Ikastaroaren prezioa*
<b>A ordainsaria.</b> ≤ 1000 euro	22 euro
<b>B ordainsaria.</b> 1001-1999 euro	32 euro
<b>C ordainsaria.</b> ≥ 2000 euro	44 euro

Udako kanpamentuak	Ikastaroaren prezioa *
<b>A ordainsaria.</b> ≤ 1000 euro	70 euro
<b>B ordainsaria.</b> 1001-1999 euro	80 euro
<b>C ordainsaria.</b> ≥ 2000 euro	90 euro

## HOBARIAK

Urteko prestakuntza ikastaroetan bakarrik aplikatuko dira hobariak, eta ez dira metagarriak izango. Kasu bakoitzean, inskribatutako pertsonarentzat onuragarriena dena aplikatuko da:

### a. Haur eta gazteen taldeetan:

- Katetoria orokorreko familia ugarietako kideak. Katetoria orokorrean sailkatutako familia ugarietako ikasleek % 20ko murrizketa izango dute kuota bakoitzean.
- Katetoria bereziko familia ugarietako kideak. Katetoria berezian sailkatutako familia ugarietako ikasleek % 50eko murrizketa izango dute kuota bakoitzean.
- Gutxienez bi seme-alaba matrikulatuta dituzten familien kasuan, kuotak % 20 murriztuko dira bigarren ondorengoarengandik aurrera.

### b. Helduen taldeetan:

- Legezko langabezia egoeran dauden pertsonen % 20ko murrizketa izango dute kuota bakoitzean.
- Diru sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) edo bizitzeko gutxieneko diru sarrera (BGDS) jasotzen dutenei adierazitako prezio publikoak % 20 murriztuko zaizkie.

**c. Betiere:**

- % 33ko desgaitasun maila edo handiagoa egiaztatzen duten ikasleek % 20ko hobaria izango dute kuota bakoitzean.
- Genero indarkeriaren biktima diren emakumeei eta haien ondorengoei % 20ko murrizketa aplikatuko zaie kuota bakoitzean.
- Bi kurtsotan edo gehiagotan aldi berean matrikulatuta dauden ikasleak, ikastaro monografikoak izan ezik. Kuotak % 20 murriztuko dira zenbateko txikiagoko kurtsotan.

Apartatu honetan ezarritako hobarien onuradun izateko, interesdunek dagokien izaera izan beharko dute inskripzioa formalizatzeko unean. Egun horretan izaera hori izapidetze fasean badago, aitortzeko edo berrikusteko eskaeraren kopia konpultsatua bidez egiaztatuko da.

## 8. ORDAINTZEKO ERA

Ordainketek bat etorri beharko dute webgunean argitaratutako zerrendetan onartua izan den ikastaroarekin. Ez da inola ere onartuko ordainketarik plazak gordetzeko aldian.

Kasu guztietan, ordainketa bereizi bat egin behar da ikasle bakoitzeko.

Ordainketek bat etorri beharko dute webgunean argitaratutako zerrendetan onartua izan den ikastaroarekin; eta plaza gorde bada, dagokion ikastaroarekin. Ez da onartuko horrekin bat ez datorren ordainketarik.

Jardueraren zerbitzua autolikidazio bidez ordainduko da, bitarteko elektronikoen bidez, helbide honetan: <https://tae.araba.eus/eu/ikastaroen-ordainketa>; bertan, aukera hauek daude:

1. Txartelarekin ordaintzea.
2. Banku erakundearekin ordaintzea. Kasu horretan, urrats hauek egin beharko dira:
  - Autolikidazio agiria inprimatu.
  - Agiriarekin bankura joan.

Nolanahi ere, ordainketaren egiaztapena tae@araba.eus helbide elektronikora bidali behar da.

## 9. PARTE HARTZAILEAK

Ikastaro bakoitzerako aurreikusitako gehieneko parte hartzaile kopurua:

- 3-5 asteartea – Gasteiz - 12
- 3-5 asteazkena - Gasteiz- 12
  
- 6-10 astelehena Errota Gasteiz - 15
- 6-10 asteartea Errota Gasteiz - 15
- 6-10 asteartea EEK Gasteiz - 15
- 6-10 larunbatak EEK Gasteiz - 15
- 6-10 larunbatak Errota Gasteiz - 15
- 6-10 larunbatak EEK Gasteiz – 15

- 11-14 asteazkena Errota Gasteiz - 15
- 11-14 osteguna Errota Gasteiz - 15
- 11-14 larunbatak EEK Gasteiz - 15
- 11-14 larunbatak Errota Gasteiz - 15
- 11-14 larunbatak EEK Gasteiz – 15
  
- Antzerki prestakuntza - Gasteiz - 17
- Hastapen maila A Gasteiz – 17
- Hastapena maila B Gasteiz – 17
- Inprobisazio teknikak - 17
  
- Gazteak A ostirala Gasteiz - 15
- Gazteak B ostirala Gasteiz - 15
- Gazteak C ostirala Gasteiz - 15
- Gazteak E ostirala Gasteiz - 15
  
- Musika antzerkia, larunbata, Gasteiz – 30 (15 ikasle talde bakoitzeko)
  
- Udako Kanpamenduak 20

Plaza-kopurua handitu ahal izango da, ARABAKO UTBaren kudeaketatik egokitzat jotzen bada.

## 10.PRESTAKUNTZA ESKAINTZA

TAE ARABA arte eszeniko arautu gabeei buruzko prestakuntzarako zentroa da. Prestakuntza eskaintza hiru urtetik aurrerakoentzat da. Oro har, ez da alde zuzeneko ezagutzarik behar. Baldintzak ezarri gero, ikastaro bakoitzaren deskribapenean jakinaraziko dira.

Ikasturte bakoitzaren amaieran, hurrengo ikasturterako eskuragarri dauden ikastaro guztiak, ordutegiak, iraupena eta epeak ezarriko dira, eta TAE ARABAREN webgunean argitaratuko dira.

## 11.PRINTZIPIOAK

Arabako Lurralde Historikoko TAE ARABAREN jardueren diseinuan, plangintzan eta garapenean, honako printzipio hauek txertatu behar dira:

- Arte eszenikoetako prestakuntza, ahal dela, sortzailea izango da, eta pertsonen garapen integralari laguntzeko izango da, herritar guztiak antzerki praktika beren borondatearen, gaitasun fisikoaren, jarreraren eta adinaren arabera ezagutu eta garatuko dutela bermatzeko.
- Arte eszenikoen prestakuntzak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatu beharko du garatzen dituen ekintza guztietan. Era berean, baliabideetarako sarbide orekatua bermatu beharko da (instalazioak, ordutegiak, giza baliabideak eta baliabide materialak...), eta arreta berezia jarriko da instalazioetan gertatzen diren sexu jazarpen, diskriminazio eta sexuan oinarritutako jazarpen mota guztiak detektatu eta borrokatzeko.
- Arte eszenikoak sustatzeko eginkizunean, kulturaren garrantzia nabarmentzen lagunduko da, hezkuntza prozesuaren osagai den aldetik, bai eta kultura ohiturak hartzearen garrantzia ere, pertsona guztien irisgarritasuna eta kultura eskubideak baliatzea bermatzeko.
- Arte eszenikoen tailerrak euskararen normalizazioa eta erabilera bultzatuko ditu ikasleen artean, bat etorri euskararen normalizazioari eta haren erabilera sustatzeari buruz gaur egun indarrean dagoen araudian ezarritakoarekin.

- Balio hauek sustatuko dira: elkartasuna, konpromisoa, talde lana, laguntasuna, berdintasuna, indarkeriarik eza, bereizkeriarik eza eta jatorri, arraza, identitate edo sexu orientazioen dibertsitatearen errespetua. Horretarako, balio horien aurkako jarrerak saihesten saiatuko da.
- Antzerkigintza irisgarria izan behar da pertsona guztientzat, eta bereziki beren izaera fisiko edo mentalagatik eragozpen gehien izan dezaketentzat.
- Premia bereziak dituzten ikasleak hezkuntza sisteman integratzea irakaskuntza ez-arautuan ere gauzatu behar da, ahal dela, antzerki jarduna taldeko kideekin batera egiteko aukera emanaz. Helburu horretarako, araudiaren edukia ikasle horien beharrezanetara egokituz joango da, haien integrazioa egiaz gauzatu dadin.
- TAE ARABAK ikasleen egoera pertsonalaren eta familia egoeraren inguruko informazio guztia isilean gordeko du. Hala ere, zentroak agintaritza eskudunari komunikatuko dizkio pertsonari tratu txarrak eragin diezazkioketen inguruabarrak edo adingabeak babesteko legeek ezarritako betebeharren beste edozein ez-betetze.

## 12. IRUDIAK EDO SOINUAK HARTZEKO BALIABIDEREN BAT ERABILTzea

- Erabiltzaileen intimitatea gordetzeko eta errespetatzeko, erabat debekatuta dago argazki edo bideo kamerak erabiltzea, telefono mugikorrek, PDAak edo funtzio hori duten beste gailu batzuk barne, pertsonen intimitatea urra daitekeen gela guztietan. Guztiz debekatuta dago komunetan, aldageletan eta antzeko geletan irudiak hartzea.
- Espazio komunetan irudi pribatuak hartu ahal izango dira, baldin eta irudietan ageri diren pertsonak kontrakoa adierazten ez badute.

## 13. IKASLEEN ESKUBIDEAK

- Adostutako baldintzetan edo instalazioak erabiltzeko baldintza berezietan ezarritako prezio publikoa edo tasa ordaintzeko zerbitzua jasotzea. Justifikatutako arrazoiak direla-eta jarduera eten behar bada, Arabako Foru Aldundiak ordaindutako zenbatekoa itzuliko du.
- Hurrengo hiru hilekoan eta ikasturte osoan zehar plaza bat edukitzea, betiere hiru hileko ordainketak epearen barruan egiten badira.
- Arte eszenikoen bidez nortasuna erabat garatzea bermatuko duen prestakuntza jasotzea.
- Jarduera segurtasun eta garbitasun baldintza egokietan jasotzea. Haien kontzientzia askatasuna, sinesmen erlijiosoak, moralak edo ideologikoak errespetatzea, bai eta intimitatea ere, sinesmen horiei dagokienez.
- Haien osotasun fisiko eta morala eta duintasun pertsonala errespetatzea, eta inola ere ez tratu iraingarrikerik edo umiliagarrikerik jasotzea.
- Ikastetxeko langileekin hizkuntza ofizialetako edozein erabiltzea.
- Erabilera orokorreko eremuak ezarritako ordutegietan erabiltzea, salbu eta ezinbesteko arrazoiren batengatik edo justifikatutako arrazoiren batengatik eremu horiek erabiltzeko desgaituta badaude.
- Zentroan dituzten datu pertsonalak eskuratzea, aldatzea eta ezeztatzea, Datuak Babesteko Lege Organikoan xedatutakoaren arabera.

## 14. IKASLEEN BETEBEHARRAK

- Onartzea arau honetan ezarritako baldintzak, gai honekin lotuta urtero garatzen direnak edo kasu bakoitzean adierazten direnak.
- Onartzea adierazitako ikastaroetara eta ordutegietara joateko konpromisoa.
- Indarrean dauden tasak ezarritako epeetan ordaintzea eta aurreko ikasturteetan kuotak ordainduta izatea.
- Ikastetxeko barne araudia betetzea, eta funtzionamendu eta bizikidetzaren arauak betetzea.
- Gainerako erabiltzaileei instalazioen erabilera legitimoa ez eragozteko eta ez oztopatzeak.
- Gainerako erabiltzaileak behar bezala errespetatzea, eta bizikidetzaren onerako portaera egokia izatea.
- Instalazioak, zerbitzuak eta ekipamenduak behar bezala erabiltzea, haiei eta gainerako erabiltzaileen osasunari eta eskubideei kalterik eragin gabe.
- Funtzionamenduan arazoren bat badago, zerbait apurtzen bada, hutsen bat gertatzen bada edo barne araudi honetan xedatutakoa betetzen ez bada, zentroko langileei horren berri ematea.
- Irakasleek euren jardunean emandako orientabideei jarraitzea eta behar den errespetua eta begirunea erakustea irakasleei.
- Kontzientzia askatasuna eta sinesmen erlijioso eta moralak errespetatzea, bai eta hezkuntza ingurunean kide guztien duintasuna, osotasuna eta intimitatea ere.
- Hezkuntza komunitateko ezin kide ez diskriminatzea jaiotzagatik, arrazagatik, sexuagatik edo beste edozein inguruabar pertsonal edo sozialengatik.
- Ordena eta garbitasuna zaintzea, higiene neurri egokiak betetzea eta ikaskideen eta irakasleen gauzak errespetatzea.
- Zentroko instalazioei edo bertako materialari nahita edo zabarkeriaz kalteak eragiten dizkieten pertsonak behartuta daude eragindako kalte konpontzera edo kalte horiek konpontzearen kostu ekonomikoa beren gain hartzea. Era berean, zentroko ondasunak lapurtzen dituzten pertsonen lapurtutakoa itzuli beharko dute. Nolanahi ere, ikasleek gurasoek edo legezko ordezkariak erantzukizun zibila izango dute, legeetan ezarritakoaren arabera.

## 15. DATUEN BABESA

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (DBEO) ezarritakoa betetzeko, jakinarazten dizugu ematen dizkiguzun datuak Arabako Foru Aldundiak tratatuko dituela, eta "T-41 Kultura Sustapena" izeneko tratamenduetan sartuko direla, zeinaren helburua Arabako Lurralde Historikoan kultura jarduerak sustatzea baita.

Bermatzen dugu datuak isilpean gordeko direla eta ez zaizkiela jakinaraziko beste batzuei, legez ezarritako kasuz kanpo.

Aukeran izango duzu datuetan sartu, haiek zuzendu, ezereztu, haien aurka egin eta tratamendua mugatzeko eskubideak erabiltzea, zeinak DBEOk aitortzen baititu, Egoitza Elektronikoaren bidez ([www.araba.eus](http://www.araba.eus)) edo Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren bulegora joz (Probintzia plaza, 5, 01001 PK, Gasteiz, Araba).

Informazio gehiagorako: <https://web.araba.eus/eu/tratamenduen-lege-ohar-hedatua>